



AGINDUA, 2019KO ABENDUAREN 3KOA, EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUARENA, 2019KO MARTXOAREN 6KO AGINDUA ALDATZEN DUENA. AGINDU HORREN BIDEZ, EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN 2019RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU ZEN.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 8.1. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat eduki behar dela. Plan horretan, sailaren dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntzak emanda zer helburu lortu eta ondorio izan nahi diren, dirulaguntzak esleitzeko zer epe dagoen, zer kostu aurreikusten diren eta nola finantzatuko diren jaso beharko da, aurrekontu-egonkortasuneko xedek betez beti ere.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko martxoaren 6ko Aginduaren bidez, eta aurretik aipatutako legea betetzeko, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Agindu hori eman ondoren, ordea, aginduan bertan zenbait aldaketa egin behar direla egiaztatu da, eta bere garaian sartu ez ziren beste hiru laguntza-programa gehitu behar direla.

Azaldutakoari erreparatuta, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan, non Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortzen, ezabatzen eta aldatzen diren eta horien zeregin eta jarduera-eremuak zehazten, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuan egozten zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenena.- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko martxoaren 6ko Aginduaren eranskina aldatzea, zeinak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen, eta agindu honen I. eranskinean erantsi diren dirulaguntza-programak gehitzea hari.

Bigarrena.- Gainerakoan, bere horretan uztea Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko martxoaren 6ko Agindua. Horren bidez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 3a

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA.

ELEKTRONIKOKI SINATUA

ERANSKINA

5.2.2- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza. Ardatz estrategikoa: Energia-efizientzia

Helburu estrategikoa: Industrian, energia-efizientzia sustatzea				
Organoa: Industria Sailburuordetza / Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.				
Programa: Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan energia-efizientiaren arloko jarduerak egiteko laguntzak.				
Dirulaguntzaren lerroa: Itzuli beharrik ez dagoen laguntza				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
			2019	2020
Helburua: Industria sektoreko ETEetan eta enpresa handietan karbono dioxidoaren isurpenak eta amaierako energiaren kontsumoa gutxitzeko jarduerak bultzatzea eta sustatzea, energia-efizientzia hobetuta.				
Ekintza: Industria-sektoreko enpresa handietan eta ETEetan energia-efizientziarako jarduerak laguntzeko programa arautzen duen apirilaren 12ko 263/2019 Errege Dekretuan ezarritako laguntzen deialdia egitea. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen ditu laguntzak, Espainiako 2014-2020ko Eskualde anitzeko Programa Operatibotik, baldin eta programa horren arabera aukeratzeko modukoak badira, eta Estatuak ere egingo du diru-ekarpena, zehazki Trantsizio Ekologikorako Ministerioari atxikita dagoen Energia Efizientiaren Funts Nazionalak.				
Adierazleak:				
Diruz lagundutako proiektuen kopurua			33	100
Mobilizatutako inbertsioak, M€-tan			22	66,5
Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
		2019	2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua

	4.000.000	2	11.000.000	2
Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.				
Sektore hartzaileak:	<p>1.- Industria-sektoreko ETE edo enpresa handi gisa hartzen diren enpresak, baldin eta haien Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) 2019ko uztailaren 30eko Aginduan ezarritakoren bat bada (EHAA 152. zk.).</p> <p>2.- Energia-zerbitzuetako enpresak.</p>			
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	<p>Lehia jarraitua.</p> <p>Diruz lagundu daitezkeen jarduerak aztertu eta txosten teknikoak erakunde kolaboratzaile batek egingo ditu.</p> <p>Izapideak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskabideari eta erantsitako dokumentuei sarrera eman. 2. Dokumentazioa aztertzea eta ebaluatzea. 3. Ematea ebaztea. 4. Jarduerak egitea. 5. Zer inbertsio eta gastu egin diren adieraztea eta justifikatzea. 6. Jarduerak egin direla dioen justifikazioa aztertzea eta ebaluatzea. 7. Laguntza ebaztea eta ordaintzea. 			

5.32. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza

Ardatz estrategikoa: 1.1.5- LEHEN SEKTORE ERRENTAGARRI, BERRITZAILE ETA LEHIAKORRA

Helburu estrategikoa: 8.- SEKTOREA EGITURATZEKO LAGUNTZA				
Organoa: Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (32)				
Programa: 7111- NEKAZARITZA ETA LANDA- ETA ITSASERTZ-GARAPENA				
Dirulaguntzaren lerroa: Laguntza izendunak				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
			2018	2019
Helburua	Barne-prozesuak hobetzea eta sektorea			
egituratzea				
Ekintza	Izendunak, zuzendaritza		19	18
Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
			2018	2019
			Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
			Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
IV. kapitulua	2.554.000,00	1	2.518.000,00	1
Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.				
Sektore hartzaileak:			Nekazaritza eta abeltzaintza	
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:			Zuzenean ematea / sailburuordearen ebazpena	

Ardatz estrategikoa: 1.1.5- LEHEN SEKTORE ERRENTAGARRI, BERRITZAILE ETA LEHIAKORRA

Helburu estrategikoa:	1. INGURUMENA ERRESPETATZEN ETA ANIMALIEN ONGIZATEA NAHI DUTEN EKOIZPEN SISTEMAK BULTZATZEA ETA HONDAKINAK BEHAR BEZALA KUDETZEA AHALBIDETZEN DUTEN TEKNIKAK ETA PROZESUAK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.
Organoa:	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (32)
Programa:	7111- NEKAZARITZA ETA LANDA- ETA ITSASERTZ-GARAPENA
Dirulaguntzaren lerroa:	Laguntza izendunak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		2018	2019
Helburua eta hondakinen kudeaketa.	Animalien ongizatea, ingurumena errespetatzea	4	3
Ekintza	Izendunak, zuzendaritza		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
	2018		2019	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
IV. kapitulua	235.000,00	1	175.000,00 €	1

Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.	
Sektore hartzaileak:	Nekazaritza sektoreko erakundeak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Zuzenean ematea / sailburuordearen ebazpena

5.3.3- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.

Ardatz estrategikoa: Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra

Helburu estrategikoa: Arrantzako, merkataritzako eta akuikulturako egiturak arrantza arduratsura egokitzea, bai eta 2020rako ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari dagokienez jasagarria izango den arrantzara ere.

Organoa: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

Programa: 7112 ARRANTZA

Dirulaguntzaren lerroa: Arrantzako, merkataritzako eta akuikulturako egiturak laguntzeko programa.

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
	2019		2020	
1. helburua: Arrantzako flota egokitzea, eta arrantza-jarduera kudeatzea, gizartearen eta ekonomiaren aldetik jasagarria izan dadin eta ingurumenarekin errespetatuz joka dezan.				
1. ekintza Egiturazko politika eta arrantza-flota jasagarritasunera zuzentzea.				
1. adierazlea. Arrantza-flotaren ahalmena kudeatzea, egokitzea eta erregulatzea: arrantza-unitateak denbora batean geldiaraztea (arrantza-unitateak)			50	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
	2019		2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua				
Guztizkoa			300.000	1

Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.

Sektore hartzaileak:	Arrantza eta akuikultura sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia / Organo eskudunaren ebazpena.

5.3.4- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza.

Ardatz estrategikoa: Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra

Helburu estrategikoa: NEKAZARITZA-, ELIKAGAI- ETA ARRANTZA-INDUSTRIARI LAGUNTZEA
Organoa: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Programa: 7113 - ELIKAGAIEN SUSTAPENA ETA KALITATEA
Dirulaguntzaren lerroa: LEHIATU ARDOA

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2019	2020
<p>Helburua: Ardoaren sektorean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan alderantzizko misioak sustatzea.</p> <p>Ekintza: Ardoaren sektorean, alderantzizko misioetarako laguntzak.</p> <p>Adierazlea: Eragindako gastua (milioiak) Lagundutako proiektuen kopurua</p>	0,8 50	

Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
	2019		2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua	300.000	1		
Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.				
Sektore hartzaileak:	Nekazaritzako elikagaiak			
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Norgehiagoka / Organo eskudunaren ebazpena.			

Ardatz estrategikoa: Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra

Helburu estrategikoa: NEKAZARITZA-, ELIKAGAI- ETA ARRANTZA-INDUSTRIARI LAGUNTZEA
Organoa: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Programa: 7113 ELIKAGAIEN SUSTAPENA ETA KALITATEA (eskuduna gaiagatik / aurrekontuagatik 71110)
Dirulaguntzaren lerroa: Inbertsioak, ARDOINB ardo-industrian.

Helburuak, ekintzak eta adierazleak	2019	2020
<p>Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko neurriak garatzea eraldaketa eta merkaturatzea hobetzeko inbertsioak egiteko, <i>Mínimis</i> Erregelamenduaren esparruan.</p> <p>1Ekintza: 1. Eraldatze- eta merkaturatze-proiektuetan inbertsioak egiteko laguntzak.</p> <p>Adierazlea: Eragindako inbertsioa (milioiak) Lagundutako proiektuen kopurua</p>	15 80	15 80

Aurrekontu-konpromisoak eta finantziario-portzentajea, finantziario publiko osoaren aldean

Aurrekontu-konpromisoak eta finantziario-portzentajea, finantziario publiko osoaren aldean					
		2019	2020	2021	
		Zenbatekoa	Zenbatekoa	Zenbatekoa	Urtekoak:
7. KAP.	EAEko funtsak	2.000.000	400.000	400.000	3
	EBko funtsak				

Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.

Sektore hartzaileak:	Nekazaritzako elikagaiak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Norgehiagoka / Organo eskudunaren ebazpena.

5.4.1- Garraio Plangintzaren Zuzendaritza.

Ardatz estrategikoa: Hazkunde jasangarria

Helburu estrategikoa: Mugikortasun jasangarria / Pertsonak eta salgaiak garraiatzeko politika / Tren-sektorea
Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza (45)
Programa: 5141 - Garraioaren Plangintza
Dirulaguntzaren lerroa: Laguntza zuzena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2018	2019
Helburua Mugikortasun jasangarria / Pertsonak eta salgaiak garraiatzeko politika / Tren-sektorea Ekintza 2019ko RAIL LIVE-ren II. EDIZIOA (MAFEX) Adierazlea	1	1

Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio-portzentajea, finantziazio publiko osoaren aldean				
	2018		2019	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua	18.000,00	1	18.000,00	1

Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.	
Sektore hartzaileak:	Tren-elkartea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Zuzenean ematea / Gobernu Kontseiluaren erabakia